

Gorreriaren eragina Espainian eta Nafarroan:

- Espainian **mota eta gradu desberdineko entzuteko desgaitasuna duten 1.230.000 pertsona daude**, eta horiei 2 eta 5 urte bitarteko 3.4000 haurrak gehitu behar zaizkie.
Horietatik, **%98ak baino gehiagok ahozko hizkuntza erabiltzen du komunikatzeko**. EINen arabera, 27.300 pertsonen (%2k) erabiltzen dute zeinu-hizkuntza.
(Desgaitasunari, Autonomia Pertsonalari eta mendekotasun Egoerei buruzko Inkesta 2020. EIN)
- **Nafarroan, entzuteko desgaitasun mota eta gradu desberdina duten 6 urtetik gorako 15.900 pertsona daude.**
(Desgaitasunari, Autonomia Pertsonalari eta mendekotasun Egoerei buruzko Inkesta 2020. EIN)
- **Mila jaioberritik bostek maila desberdineko gorreria dute**, eta horrek, **Espainian, urtero, 1.890 familia berrik seme-alaba gorra dutela** esan nahi du. (Haurren Gorreria Goiz Detektatzeko Batzordea-CODEPEH)
- **2021ean, Nafarroan izan ziren 2.113 jaiotzetatik, 27 haurrek entzumen galera bat izango dute.**
- Herrialde garatuenetan, **12-35 urte bitarteko nerabe eta gazteen %50ak** entzumena galtzeko arriskua du, dibertimenduzko jokoen ingurunean zaratari gehiegizko esposizioa dutelako.
(Osasunaren Mundu Erakundea)
- **Presbiakusiak, 65 eta 70 urte bitarteko biztanleriaren %30ari eragiten dio gutxi gorabehera, eta biztanleriaren %80ra iristen da 75 urtetik gorako biztanlerian.** Kutsadura akustikoaren eta bizimoduaren ondorioz, adinak berezkoak dituen entzumen-arazo horiek areagotu egiten dira, 50 urte inguruan.
(Espainiako Otorrinolaringologia Elkarte)
- **Biztanleriaren %11,3ak entzumen-arazoak ditu**, mota eta maila desberdinetakoak, eta horrek, zailtasunak sortzen dizkie elkarrizketa bat ahots-tonu normal batean ulertzeko.
(EuroTrak azterlana Espainian 2020)
- Biztanleria orokorreko **mila pertsonetatik batek gorreria hartzen du bere bizitzan zehar.**

PERSONA GORREN NAZIOARTEKO EGUNA

2023ko irailaren 30^a

EUNATE ELKARTEAREN MANIFESTUA

Familias de personas sordas de Navarra
Nafarroako pertsona gorren familien elkarte



📍 K/ Belateko Monasterioa 3 zenb., behe zolairua, 31011 Iruña


☎ 948 261877

🌐 www.eunate.org



FIAPASeko KANPAINA:
www.queloescuchetodoelmundo.com

2023ko PERTSONA GORREN NAZIOARTEKO EGUNA EUNATE ELKARTEAREN MANIFESTUA



ZERESAN HANDIA DUGU

Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna dela eta, Pertsona Gorren Familien Españako Konfederazioak (FIAPAS) eta EUNATE, Nafarroako Pertsona Gorren Familien Elkarteak, gizarteari eta boetere publikoei adierazpen hau helarazi nahi diegu:

FIAPAS eta EUNATEk Familien Elkartegintza Mugimenduak gizartea eraldatzeko agente katalizatzaile gisa lan egiten dugu, gobernantzatik eta elkarrizketa zibiletik politika publiko ausartak bultzatuz eta sustatuz, gorreria duten pertsonen eta haien familien bizitzaren esferetan oraindik dauden desberdintasunak konpentsatzeko.

Gaur egun, persona gorren belaunaldi berri baten aurrean gaude, entzumen eta hizkuntza estimulazioa jaso dutelako, teknologiaren onurak aprobetxatu dituztelako eta ahalegin pertsonala ere egin dutelako, sozialki trebeak direlako eta modu independente eta autonomoan bizitzeko prestatuta daudelako, gizartean aktiboki parte hartuz. Familia ahaldunduak ere aurkitzen ditugu, kontzientzia hartzea bultzatzeko eta beren eskubideen aldarrikapena babesteko gaitasuna dutenak.

Hala eta guztiz ere, aurrerapen handiak egin diren arren, argi dago oraindik gabeziak daudela eskubideak erabat gauzatzean, laguntza-baliabide nahikorik ez dagoela, irisgarritasunik ez dagoela eta familiaren premiei erantzun egokirik ez dagoela.

1999an, persona gorren familia talde batek helburu komun batekin bat egitea erabaki eta EUNATE, Nafarroako Pertsona Gorren Familien Elkarteak, sortu zutenetik, aurrera egin dugu helburu partekatuen inguruan eta gizarte aldaketa bat sortzera bideratuta, persona gorrek eta haien familiak beren bizitzaren eta erabakien protagonista izan daitezen, beren eskubideak gauza ditzaten eta baldintza desberdinatan parte har dezaten.

“Elakarrizketa zibila” kontzeptua sortu gabe zegoenean, FIAPAS Familien Elkartegintza Mugimendua, EUNATE kide dena, hor zegoen jada, administrazio publikoekin aktiboki eta modu konstruktiboan lankidetzan arituz, lantza gisa, horizonteak irekiz eta jomuga berriak ezarriz, pertsona gorren gizartetzeari eta haien eskubideak esparru guztietan baliatzeari dagokionez, familiei lagunduz eta haien behar eta eskaerei erantzutea aldarrikatuz. Gorreriaren detekzio goiztiarrekin eta errehabilitazio logopedikoarekin batera, osasun eta hezkuntza-arretan aurrera egitea ere sustatuko da, aurrerapen teknologikoak eta entzumenerako, informazioarako eta komunikazioarako irisgarritasuna bultzatuz.

Atzera begiratuz gero, ikus dezakegu asko direla azken bost hamarkadetan egindako aurrerapenak. FIAPASek eta EUNATEk (Nafarroako Foru Kumunitatean persona gorren eta haien familien aldeko 24 urteko lana eginez), aurrerapen horietatik kanpo ez egoteaz gain, sustatu egin ditugu eta horiek aldatzeko eragile gisa jardun dugu erantzun politiko eta sozial egokiak bultzatzeko.

Aldi berean, EUNATEk eta FIAPAS Familien Elkarteen Mugimenduak bilakaera izan du, eta gure herrialdeko persona gorren familien ordezkartza-plataformarik handienean bihurtu gara, baita legitimatzen duen Gizarte-onarri zabala duten autonomia-erkidegoetan ere.

Horregatik, **ALDARRIKATZEN DUGU FIAPAS eta EUNATE Familien Elkarteen Mugimenduari gadokionez:**

-Lehen mailako agente laguntzaileak eta solaskideak administrazioetan eta botere publikoetan, aldaketa politikoa eta soziala sortzeko, persona gorren eta haien familien inklusioari eta parte-hartzeari dagokionez.

-Gorreria duten pertsonen eta haien familien eskubideak salatzeak eta aldarrikatzeko eragile eta bideak.

-Gizarte-eraldatzeko erreferenteak, egoera berrietara egokitzeko gaitasuna dutenak eta gorreria duten pertsonen eta haien familien eskaerei eta sortzen ari diren premiei erantzunak etengabe bilatzen dituztenak.